

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko irailak 6 • 1323 zenbakia

TRIKITI DOINUA ZERURA BEGIRA

Euskara
eroso
bizitzeko

aek
euskara praktikoa

EIBARKO AEK EUSKALTEGIA

2024-25 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK irailaren 30era arte!

Maila guztiak: A1,A2,B1,B2,C1,C2 (goizez, eguerdian nahiz arratsaldez)
AURREZ AURRE / ONLINE / AUTOIKASKUNTZA

DIRU-LAGUNTZA BERRIAK:

C1 mailako ikastaroetan (16-18 urtekoentzat)

A1 mailako ikastaroetan

Sostoa 1-1° solairua

943 20 13 79

eibar@æk.eus



INGELESEKO KLASEAK

2024/25 IKASTURTEA

IRAKASLE ELEBIDUNAK ETA
BERTAKOAK
KLASEAK 2 URTETIK AURRERAKO
UMEENTZAT ETA HELDUENTZAT :

- CAMBRIDGE AZTERKETEN
PRESTAKETA
- HIZKETAN JARDUTEKO
KLASEAK
- EMPRESENTZAKO KLASEAK
- KLASE PERTSONALIZATUAK

INFO CEHIAGO: 691125471
INFO@ABBIEWHITEENGLISH.COM

ABBIEWHITE
english school

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*

Orain Eibarko,
Elgoibarko eta Ermuko BM-n
ere aurki gaitzakezu

Ekolozpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA Aiazitia Bailara (San Migel 20204, 7) **ELGOIBAR 690288002** (Olaiz Txurruka Maiora)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Aintzane Agirrebeña eta Mirari Azkune trikitilariak bigarren diskoa kaleratu dute: 'Geuretik'. Bientzat berezia den Arratek udako egun lainotsuarekin hartu gintuen, bertan elkartu baiginen diskoaz, bere lanketaz eta trikitixaz berba egiteko. Zuzenean ikusi nahi badituzue, astelehenean Zarautzen izango duzue aukera.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Ana Telleriaren haragi-bola

Telleria alkateordeak abuztuko bere posturoean suspenditu egin du, zerotik gertu dagoen notarekin. Kudeaketaren inguruko balorazioei ekin aurretik, egokia dirudi definizioz interpretaziopean ez dauden gertakariak publikoki zerrendatzea.

Abuztuaren 12an argia joan zen Txonta kalean, Solac tailerra egon zen tokitik aurrera, eta bizilagunak udaltzainei deitzen hasi ziren egoeraren berri emateko.

Larunbatetik iganderako goizaldean udaltzain eta erztzainen argi urdinek argiztatu zuten auzoko iluntasuna, labankada baten eta horrek auzokideen artean eragindako kezkarengatik.

Abuztuaren 20an Telleria andreak arazoaren berririk ez zuela esan zion auzokide bati eta, arrapaladan, Solaceko kalezuloa argiztatuta erakusten zuten argazki batzuk argitaratu zituen Facebooken.

Abuztuaren 25ean Txontak kedarra baino beltzago jarraitzen du.

Laburbilduz: haragi-bola baten pareko maila morala izan behar da gero, soldata ona ordaintzen diogunoi konponbiderik emateko gaitasunik ez izan, eta sare sozialetan harrokeriatan ibiltzeko.

Bestalde, udaltzainei deitu eta, andre horrek arazoaren berri ez zuela esan bitartean, bederatzi egun pasatu izanak ondoriozko bi emaitzatarra garamatza:

1. aukera: Telleria andreak udaltzainak eta zerbitzuetako saila euren lana egiteko ezgaiak direla onartzen du eta, horrela, bera sail horietako arduraduna den aldetik, ez duela neurria ematen.

2. aukera: Telleria andreak Txontako bizilagunei gezurra esateko inolako kezkarik ez duela. Lagun baten aholkua: harrokeriatan ibiltzeari laga eta hasi behingoz jendearen arazoak konpontzen.

Ion Garate, Txontako bizilaguna

Hortik esanak



Pateretan datozenentzat telefonoa garrantzitsuagoa da dirua edo arroparekin daramaten motxila baino. Hori da duten baliotsuena, euren herrialdearekin eta euren jendearekin lotzen dituen, hemen lagundu diezaiekeen kontakatazketatik aparte. Azken batean, telefonoa da bizitzeko duten pasaportea. Eta mugikorra ez da garestia. iPhone daramatela badiote ere, nik ez dut halakorik ikusi. Erreskatatu genituenean eskatu ziguten lehenengo wifia izan zen, euren etxeetara deitu ahal izateko.

ISA EGIGUREN, Aita Mariko boluntarioa

Ez zara inor uda osoan makrokontzertu horietako batera joan ez bazara; ez joatea baino okerragoa da joan zarela ez frogatzea; frogatzeko, ez da aski kontatzea. Irudiekin jakinarazi behar diezu hurbileko nahiz urrunagokoei orduantxe eta han, zu zeundela. Extimitateak intimitateari gaina hartu dion honetan, guztiok dakigu intimitatearen arloan eskubideak baditugula.

ANDONI EGAÑA, bertsolaria

Olinpiar senidetasunari badario halako ustel usain mingots bat... Gizonezkoen jauzi hirukoitzean hiru kubatar izan ziren podiumean. Hirugarrenak Italiari eman zion brontzezko domina. Bigarrenak, Portugali zilarrezkoa. Eta lehenak, urrezkoa Espainiari. Hirurek egin zuten ihes goi mailako kirolari egin dituen herrialdetik, hainbeste urtetako blokeo basatiaren ondoren bizi maila eskasean bizi diren herrikideen ondotik. Herrien arteko zer senidetasun islatzen du egoera horrek? Zer errespetu merezi du irabazle horien aitzakian estatu ostalariak (kurtsiban) mundu guztiaren aurrean jasotzen duen ohorezko ereserkiak?

XABIER SARASUA, Berriak (zuzendariari sekzioan)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARIAN → Aurrean. “Hara, beste barik frakak bajatu ta nun ipiñi eban atzia zulo parian”. Ondoan. “Hi be sekula ez haut ikusten Eibarren, baiña hi bai tokau be parian nik autuan juateko aukeria daukadanian”.

PARIAN JO → Bete-betea jo. “Bigarren tiruak parian jo eban platera”. Asmatu. Gaztelerazko ‘dar en el clavo’. “Lehelengo berbarekin, parian jo dozu.”

Txomin pultsularia berunezko blokea altxatuta duela

Ikusleen aurrean, mikelete bat. Txomin (Domingo Zenarruza-beitia) Aulestiako semea, harri-jasotzailea ere bazen. Indalecio Ojangurenek 1948an egin zion beste argazki batean 10 arroako harri biribila altxatzen ageri da, Arraten.



Farmaziak

BARIXAKUA 6

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

ZAPATUA 7

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 8

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 9

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 10

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

EGUAZTENA 11

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUENA 12

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

BARIXAKUA 13

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2024an,

Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Mariasun Etxeberria Basaras. 84 urte. 2024-07-18.
- Noemi Espeso Carranza. 90 urte. 2024-07-20.
- Elida Gonzalez Alen. 89 urte. 2024-07-25.
- Jesus Mari Elkoro Aldazabal. 73 urte. 2024-07-25.
- Patxi Telleria Iriondo. 77 urte. 2024-07-26.
- Bautista Rubio Justel. 69 urte. 2024-07-27.
- Maite Zubia Elorriaga. 86 urte. 2024-07-28.
- Antonia Ortega Moraga. 57 urte. 2024-07-28.
- Juan Luis Hajar Sanchez. 53 urte. 2024-07-29.
- Javi Benito Anton. 56 urte. 2024-07-29.
- Javier Dominguez Vitoria. 59 urte. 2024-08-01.
- Jose Alberto Yaguez Laca. 60 urte. 2024-08-03.
- Julia Robles Tejedor. 96 urte. 2024-08-06.
- Angel Ibañez Gabilondo. 86 urte. 2024-08-06.
- Agustin Aranzibia Basterretxea. 87 urte. 2024-08-08.
- Manuel Mujika Figueras. 92 urte. 2024-08-09.
- Benjamin Maguregi Solaluze. 60 urte. 2024-08-11.
- Jaione Ibarra Orrantia. 64 urte. 2024-08-12.
- Concepcion Gonzalez Murillo. 93 urte. 2024-08-13.
- Miguel Rubio Saez. 66 urte. 2024-08-14.
- Rosario Moñux Gimeno. 90 urte. 2024-08-16.
- Rosita Ramos Gonzalez. 93 urte. 2024-08-17.
- Jesus Mari Muniozguren Larrarte. 66 urte. 2024-08-18.
- Lucia Aranberri Arrillaga. 91 urte. 2024-08-22.
- Rosa Ruiz Cruz. 91 urte. 2024-08-22.
- Gonzalo Agirre Jainaga. 93 urte. 2024-08-22.
- Arrate Viteri Garay. 67 urte. 2024-08-25.
- Lurdes Eguren Begiristain. 65 urte. 2024-08-26.
- Jose Angel Iriondo Olasolo. 60 urte. 2024-08-26.
- Oliva Lozano Illan. 92 urte. 2024-08-29.

Abuztua obrak egiteko aproposa ere bada

Urteroko martxan, abuztuan jende asko herritik kanpora joaten dela aprobetxatuz, herriko hainbat tokitan konponketa txiki batzuk egin ditu Udalak. Beste maila batean, uda aurretik hasita zeuden obra handiagoetan ez dute atsedetik hartu eta, ahal izan duten neurrian, herrian nagusi izan den lasaitasuna baliatu dute azkarrago lan egin eta aurreratzen joateko.



Azken hilabeteotan lanean aritu eta gero, erremate txiki batzuren faltan, Pagaegi kaleko obrak ia amaitutzat eman ditu Udalak: “Amaitzen ari dira Pagaegi eta Jardinieta kaleen arteko eremuko urbanizazio-obrak. Obra hauek beharrezkoak izan dira auzoko azpiegitura eta irisgarritasuna hobetzeko. Besteak beste, euste-horma bat amaitu da, arrapala erosoagoak egin dira, eta espaloi berriak eraiki dira Jardinietako igroeran”. Aldi berean, Iberdrolaren linea elektrikoak lizentziapean konektatzeko zangak egin dira, Pagaegi kaleko aparkalekuaren inguruan. Eta, hondeaketa-lan horiek aprobetxatuta, kale bereko 3. eta 7. zenbakien artean euri-uren kanalizazioaren tarte bat osatu dute: “Horri esker, orain euri-urak eta ur beltzak bereizteko sistema bat dago kale osoan”. Une honetan Estaziño kaleko etxebizitzak eraikitzen ari dira, eta ingurua eta espaloiak urbanizatzen dihardute: “Eraikitzen ari diren etxebizitzaren lehen fasea ia amaituta dago eta dagoeneko ikus daiteke etorkizunean Pagaegi eta Estaziño kaleak batuko dituen kale berria”.

Ildo horretan, Estaziño kalearen bide paraleloa oinezkoentzako gune izango dela iragarri berri dute. Urbanizazio berriaren eraikuntzak jada bistan laga du Blas Etxebarria eta Pagaegi kaleak tren-geltokiarekin



lotuko dituen kale berria. Horrekin batera, pertsona nagusientzako tutoretzapeko bederatzia apartamentu proiektatu dira Estaziñoko urbanizazio berrian.

Eta bertatik oso gertu, Estaziño inguruan, trenbidearen gaineko pasealekua erakitzeko lanean jarraitzen dute, gau eta egun. Saihesbidearen Estaziñorako irteera inguruan ari dira beharrea egunotan.

Bestalde, Barrena kalean dagoen “Hijos de Gabilondo SL” eraikinaren eraispen partziala egiteko lanak erritmo onean doaz, eta bota beharreko gehiena eraitsita dago honezkerok. Hala ere, eraispen partzialarekin amaitu arren, 2025eko abendura arte ez dago aurreikusita proiektu osoarekin amaitzea.

Nahiko aurreratu dituzte, baita ere, Torrekuako anbulatorio zaharra birgaitzeko lanak. Eraikinaren barrualdea eraitsi eta gero, sasoi bateko anbulatorioetik oso gutxi geratzen da. Udalak onartutako proiektuaren arabera, barrualdea eraberritzeko obrak egingo dituzte, eraikinaren beheko solairuan jubilatuetxe bat egokitzeko eta komunikazioa eskaileren eta igogailuaren bidez birgaitzeko. Eraikinak, halaber, formazio-gelak, beste areto batzuk eta kafetegi bat izango ditu.

Eta jabeek aurkeztutako proposamenari jarraituz, Udalak Beistegui eraikina birgaitzeko premia adierazi du. Eraikinak Urkizu pasealekuko 1. zenbakia eta Bittor Sarasketako 7. zenbakia hartzen ditu.





Erretzeari lagatzeko terapia saio berriak Minbiziaren Aurka Gipuzkoan-en eskutik

AECC-Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak tabakoa erretzeari laguntzeko terapia-saio berriak antolatu ditu. Zerbitzua doakoa da eta elkarteak Eibarren duen egoitzan eskainiko dituzte saioak, eguenetan, 11:00etatik 12:00etara. Terapia-saioak banakakoak edo taldekoak izan daitezke, eta tabakismoan aditua den psikologo batek zuzenduko ditu beti. Parte hartu nahi dutenek irailaren 16rako eman beharko dute izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, elkartearen webgunean begiratu (<https://www.contraelcancer.es/es/tabakoari-agur>).

Eraldaketa esanguratsuak helburu dituen 'u-lab 1x' aurkeztuko dute eguenean

U-lab 1x programaren edizio berria antolatu dute Eibarren. Antolatzailerik diotenez, "online saioak eta aurrez aurreko topaketak bere baitan hartzen dituen programa elkarrengatik da, partaideei beren komunitateetan, erakundeetan eta sistemetan eraldaketa esanguratsuak lortzeko tresnak, metodoak eta espazioak eskaintzen dizkiena". Saioetan honakoak ikasi ahalko dira: autoezagutza (lidergo-gaitasun garrantzitsuena); entzute sakona, behaketa zehatza eta elkarriketa lantzeko praktikak; eta gizartearen ongizatea sortzen duten berrikun-

tzak sortzeko metodoak. Topaketak domeketan izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Egotik Ekora gelan (Casa del Puebloko 4. solairuan), irailaren 22an eta 29an, urriaren 6an, 20an eta 27an eta azaroaren 17an. Aurkezpena, berriz, irailaren 12an izango da, 20:00etan, leku berean. Parte hartzeko ez dago aldeztu aurreko eskakizunik eta saioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Programa doakoa da. Argibideetarako 670 39 12 06 telefono zenbakira deitu daiteke. (Informazio gehiago: <https://www.u-school.org/offering/u-lab-1x-2024>).

Aurretiatzko borondateei buruzko informazio zerbitzua bueltan

Udako oporrak amaituta, aurretiatzko borondateei buruzko informazio zerbitzua ematen hasi dira berriz ere Untzagako gizarte zentroan. Aurreko ikasturtean bezala, hilean birritan emango dute bizi testamentuaren inguruko informazioa, hilabete bakoitzeko 1. eta 3. eguaztenetan, Untzaga gizarte etxeko Arrate aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Ikasten elkarteak antolatzen duen Esperientzia Eskola 19. promozioa ikasleek abiatu zuten Agurtzen ekainean, ikasturte amaierako proiektu gisa. Horrekin batera, gaiari buruz gehiago sakondu nahi dutenentzat, hilabete honetarako hitzaldia antolatu dute, Duintasunez Hiltzeko Elkartearen kideekin. Irailaren 26an (eguna) izango da, 18:30ean Portalean (areto nagusian).



Odola emateko saioak irailaren 12an eta 26an

Gipuzkoako Odol-emaileen Elkarteak datorren asteko eguenean (irailak 12) egingo du iraileko lehen saioa, odola eman nahi dutenentzat. Beti bezala, Untzaga jubilatutako etxean egongo dira, 16:50etik 20:50era. Odola ematera joateko hurrengo saioa irailaren 26an izango da, toki eta ordu berean.



MATRIKULA

Irailak 2tik aurrera

www.uni.eus



ESPEZIALIZAZIOAK



BIDEO JOKOEN ETA ERREALITATE
BIRTUALAREN GARAPENA

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

IRAILAK 14
ABENDUAK 14

Babesleak:



Antolatzailea:



Laguntzailea:



www.bertsosale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

“Martera heldu eta gero, Lur-1 satelitearekin berriz ere sentitu dugu gorenera iritsi garela”

CRISTINA ORTEGA JUARISTI • AVS-ko espazioko zuzendaria



Oso osorik Euskal Herrian egindako lehen satelitea espazioratu zuen Space X konpainiaren Falcon 9 koheteak edo suziriak abuztuaren 16an, AEB-ko Espazioko Indarrak Vandenberg (Kalifornia) duen basetik. Elgoibarko Added Value Solutions-ek (AVS) diseinatu eta muntatu du Lur-1 izena duen satelitea, eta Cristina Ortega Juaristi eibartarra izan da proiektuaren buruetako bat, bera baita AVS-ko espazioko zuzendaria.

Marte planetara birritan iritsi ondoren, beste mugarri bat ezarri du Cristina Ortega Juaristik bere (espazioko) ibilbidean. Eta ez hori bakarrik, lorpen hau mugarria baita Euskadiko espazioko-industriarentzat, Lur-1 hemen egin delako eta, besteak beste, gure lurraldea behatzeko erabiliko delako.

Nola bizi izan zenuten Lur-1 satelitearen jaurtiketa? Urduritasun handiarekin. Hasteko, jaurtiketarako itxaron egin behar izan genuelako. Space X-ek hasieran esan zigun suziria ekainaren 1ean jaurtiko zutela. Beraz, Lur-1 maiatzetik zegoen suzirian instalatuta. Itxaronaldi horrekin denbora, aukerak eta lehiakortasuna galdu genituen, espazioko merkatuan segundo bakoitzak duelako garrantzia. Bestetik, Space X enpresaren Transporter misioen barruan, aurretiko jaurtiketak akats bat izan zuen jaurtiketaren bigarren etapen eta horrek ere urduritasuna areagotu zuen. Izan ere, akatsen bat izanez gero, satelitea galdu egingo genuke eta akabo. Laburbilduz, urduritasun egoera horretan geunden eta jaurtiketa ondo joan zela, satelitea suziritik ondo banandu zela eta handik zuzen irten zela ikustean, demaseko emozioa sentitu genuen.

Zein izan zen hurrengo pausua?

Satelitearekin kontaktatzea. Hasieran kostatu egin zitzaigun. Izan ere, suziriak satelitea gutxi gorabehera non askatu duen esaten dizu, baina Gasteizeko egoitzan dugun antena batekin bere posiziora apuntatu behar genuen eta, kokapen zehatzik ez genuenez, ondo harrapatu arte, sateliteak pare bat aldiz orbitatu zuen. Jaurtiketa egin eta hurrengo egunean egin genuen kontaktua satelitearekin eta hor bai poza betea izan zela. Den-dena ondo zegoen, sistema guztiek funtzionatzen zuten eta, gauzak horrela, misioa hasteko prest geunden.

Bost urteko misioa izango du Lur-1 sateliteak, baina zein izango da zehazki?

Lur-1 sateliteak lau helburu ditu: batetik, espektro anitzeko kamera bat darama eta Euskadiko irudiak egingo ditugu, irudiak erakundeen eta ikerketa zentroen (HAZI eta AZTI) esku lagatzeko. Gaur egun eskura dauden satelite-irudiak baino irudi hobek egiteko diseinatu dugu Lur-1, zentro horien ikerketarako baliagarriak izan daitezten. Hori Lur-1 baliozteko egingo dugu eta gure asmoa etorkizunean irudi horiek komertzializatzea da. Bigarren helburua etorkizunean komunikazio kuantikoak egin ahal izateko



AVS enpresak eta Cristina Ortega Juaristik historia egin dute Lur-1 satelitearen jaurtiketarekin. AVS

esperimentu bat egitea da. Komunikazio kuantikoak etorkizuna direla uste da, hackeaezinak direlako. Kontua da gaur egun Lurrean ez dela oso erraza seinale kuantikoa pasatzea, zuntz optikoaren bitartez egiten delako. Beraz, etorkizuna satelite bidezko komunikazio kuantikoan dagoela uste da, Lur planetako puntu batetik bestera komunikazioa mikrosegundoetan egin dezakezulako. Orduan, AVS-n hori egin ahal izateko teknologia garatu dugu eta lurretik laser-teleskopio batekin probatuko dugu. Ondo dabilela egiaztatuz gero, erabili ahal izango den teknologia izango da. Hirugarren helburuari dagokionez, Lur-1 satelitean Europako Espazio Agentziarekin garatu dugun interfaz mekaniko bat daramagu, hemendik aurrera Europako satelite guztiek eramango duten interfaza. Horren bitartez etorkizunean sateliteak orbitatik ateratzea lortu nahi da, zerbitzuko beste satelite batek funtzionatzeari utzi dion satelite hori harrapatzeko, sarrerako orbitan kokatzeko eta espazioko zabor ez bihurtzeko. Lur-1 da espazioan teknologia hori jarri duen Europako lehen satelitea eta espazioko jasangarritasuna erakusteko balioko du. Garrantzitsua da hori, arazo globala dela-

“Honekin espazioko misio oso bat egiteko gai garela erakutsi nahi dugu eta hemendik aurrera misio gehiago egin”

ko. Azkenik, laugarren helburua orokorragoa da, baina guretzat proiektu hau gure teknologiaren erakuslea da. Hau da, honekin espazioko misio oso bat egiteko gai garela erakutsi nahi dugu, eta hemendik aurrera misio gehiago egin.

Lorpen hau zergatik da garrantzitsua Euskadirentzat? Espazioko merkatua oso modu azkarrean ari da aldatzen, batez ere gaur egun Space X bezalako enpresei esker espaziora heltzea eskuragarriagoa delako. Horrek negozio berriak sortzeko aukerak ematen ditu eta Euskadi bezalako lurralde batean, non industria-sare garrantzitsua dagoen eta mundu aeroespazialean maila

altua erakutsi den, espazioko misio oso bat garatzeko pausua emateak Euskadi guztia posizionatzen du espazioko panoraman.

Mugarria ezarri da jaurtiketarekin, baina misioaren helburuak lortzeko mugarri gehiago ezarriko ditu?

Jaurtiketarekin bakarrik ez dugu dena lortu, baina ez ditugu bost urte itxaron beharko helburuak bete direla jakiteko. Lehen irudiak lortzen ditugunean eta froga kuantikoa egiten dugunean, helburuak betetzen joango gara. Jasangarritasunaren helburua lortzeko gehiago itxaron beharko dugu, ez dugulako nahi sateliteak urtebetean funtzionatzeari lagatzea. Baina bai, bost urte baino lehenago bete ahal izango ditugu helburu guztiak.

Misioa garrantzitsua izan da Euskadirentzat, baina besteak beste zu zeu AVS-ko espazioko zuzendaria izanda, Eibarrek ere badu zeresana honetan guztian, ezta?

Espazioaz gain, AVS-n beste hainbat zientzia arlo lantzen ditugu: partikula-fisika, fusioa, medikuntza-teknologia... Espazioko proiektuak garatzeko taldetxo bat dugu eta, hainbat proiektutan parte hartu izan dugunez, bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu proiektu berri bakoitzean. Aintzane Arizaga eibartarra AVS-ko administraria da eta beti esaten dut berak duela "itzaleko meritua". Espazioaren merkatua, Big Tech delakoa, oso zaila da, ez duelako beste merkatuek bezala funtzionatzen. Beraz, ez da erraza esku artean ditugun proiektuak aurrera eramatea, eta Aintzane lortzen du. Bestalde, Danel Juarez ere badaukagu espazioko taldean. Berak ez du hainbeste parte hartu Lur-1 proiektuan, beste gauza harrigarri batzuetan dagoelako sartuta, besteak beste Ilargiko eta Marte planetako esploraziorako proiektuetan (Marteko laginak jasotzeko robot-eskua garatzen ari gara, adibidez). Bere lanean izarra da.

Harrigarria da horrelako gauzak gure etxe alboan egiten direla ikustea!

Hazten ari gara eta jendea behar dugu. Beraz, ondo dago ikustea horrelako gauzetan ibiltzeko ez dela hemendik kanpo joan beharrik.

Espazioko kontuetan aritu nahi duen jende gazteak eskura ditu erreferenteak, baina zure kasuan nola izan zen?

Beti gustatu izan zaizkit espazioko kontuak eta nire familiaren zati bat Miamin (AEB) bizi denez, eurei



Aintzane Arizaga eibartarra AVS-ko administraria da.



Danel Juarez ere eibartarra da, eta Ilargiko eta Marteko esploraziorako proiektuetan hartzen du parte.

egindako bisita batean Cañaveral lurmuturreko Kennedy Space Center ezagutzeko aukera izan nuen. Bertan Ilargira joan ziren astronauten trajeak eta bestelako gauzak ikusi daitezke, eta harrigarria iruditu zitzaidan. Karrera egiten hasteko orduan aeronautika ingeniari-tza egitea aukeratu nuen eta, ondoren, espazioko ibilgailuen espezializazioa egin nuen. Harrezkero, espazioarekin zerikusia duten gauzetan lanean hasi nintzen, eta gaur egun gustatzen zaizkidan gauzetan lan egiteko zortea dut.

Martera iritsi diren bi proiektutan parte hartu ondoren, Lur-1 satelitea garatzea zer izan da zuretzat?

Marteko proiektuak gauzatu genituenean gorenera iritsi ginela pentsatu genuen, baina Lur-1 proiektuarekin berriz ere sentitu dugu gorenera iritsi garela, eta etorkizunean horrelako lorpen gehiago lortu ditzakegula uste dugu. Martera iristea oso mugarri garrantzitsua izan zen AVS-rentzat eta niretzat, bertara heltzea oso zaila delako. Martera iristea oso gutxiren esku dago.



EKHI BELAR

Erroskila zaporedun sorpresa-kutxa

Ez naiz batere pertsona mistikoa, baina Arratek badu zerbait nire barrenarekin konektatzen didana. Bizitza osoan zehar hainbat eta hainbat aldiz joatearen ondorio izango da, zelaia eta zuhaitzak nire eboluzioaren lekuko izango balira bezala. Arraterentzat ez dago sekreturik.

Gure Arrate. Horrela da gurasoen kuadrilakoen seme-alabentzat. Gu bezala, segur aski Arrate izan da kalekumeok naturarekin loturarik estuena izaten lagundu digun tokia. Paradisua abenturak maite dituzten umeentzat, bertako malda, zuhaitz eta izkina artean mila istorio asmatzeko aukera ematen dituelako. Eta munduko futbol zelairik onena lau jertse zutoin bezala jarri ondoren. Hori bai, baloia maldan behera joanez gero, botatzen duena joan behar da bila. Kontuz asunekin.

Umeentzat paradisua eta txirindularientzat infernuko bidea Santutegian zerua ukitu arte. Egun batez munduko kirolgunerik zirrargarrienak bihurtzen dira etxe alboan ditugun maldak.

Zarata gehiago egiten zuten ziztu bizian igotzen ziren lasterketa-autoek, bihurtune bakoitzean bizia arriskuan jarritz. Eta merezi zuen ba gora bizirik iristeak, bertan jan zitezkeelako munduko krocketarik onenak. Arrate beti izango da Kantabria.

Zarata, orain, auto beltz erraldoietan datozen tiratzaileek sortzen dute, ingurunea laranja kolorez jantziz.

Hori eta gehiago da Arrate, denontzako tokia dagoelako bertan. Mojen egoitza da eta, era berean, gazteek drogekin eta lokatz arteko sexu harremanekin esperimintatzeko espazioa. Erroskila zaporedun sorpresa-kutxa bat.

Dena da posible bertan eta sinesten ez dutenek ere fedea diote Ama Birjinari. Domekan kandelak ixotuko dizkiote elizan. Ados, baina gorde pare bat euro Kittonbolarako.

“Segur aski Arrate izan da kalekumeok naturarekin loturarik estuena izaten lagundu digun tokia”

“Dugun penarik handiena Walterrek lana amaituta ikusi ez izana da, demaseko ilusioa zuen diskoarekin”

AINTZANE AGIRREBEÑA ETA MIRARI AZKUNE • Trikitilariak



Bigarren diskoa kaleratu dute Aintzane Agirrebeña eta Mirari Azkune trikitilariak: ‘Geuretik’. Bidea ez da erraza izan, ezta motza ere, 2019an ekin baitzioten diskoaren grabaketari. Maitasun eta esfortzu handia eskaini diote lan berriari, eta orain CD eta pen-drive formatuetan eskuratu daiteke Arrate Irratian eta Klub Deportiboan.

Arraterekin lotura berezia dute bai Aintzane bai Mirarik eta toki egokia iruditu zaie elkarrizketa egiteko. Ez dugu Arrateko jaietan zuzenean entzuteko aukera izango, baina Zarauzko Euskal Jaian egongo dira hurrengo egunean, astelehenean.

Nolako diskoa da ‘Geuretik’?

AINTZANE: Diskoak 14 kantu ditu. Trikitilariak garenaz, trikitixa giroko diskoa da, baina abestutako kantu asko ditu. Bioi asko gustatzen zaigu kantatzea, eta rantxerak eta kantu ezagunen bertsoak egin ditugu. MIRARI: Abesti batzuk guk sortu ditugu eta beste batzuk bertsoak dira, erritmo ezberdinetakoak.

Zergatik ‘Geuretik’ izenburua?

AINTZANE: Batetik, kantu batzuk geuk sortuak dira, baita letrak ere. Bestetik, trikitixa gure musika da, gure sustraietatik datorren musika. Eta azkenik, gure aldetik jendeari eskaini nahi diogu disko hau. Beraz, horregatik jarri diogu ‘Geuretik’.

Oso disko pertsonala da, beraz.

MIRARI: Bai, azkenean abesti guztiak guk sortuak edo bertsoak izan, guretik lantzen ditugu, gure egiten ditugu.

Diskoa grabatzeko “ibilbide luze samarra” igaro behar izan duzuela aipatu izan duzue. Zergatik?

MIRARI: 2016an lehen diskoa grabatu genuen, ‘Bidea hauspotzen’, eta antzeko prozesua jarraitu dugu. Lehenengoan, Bizkaiko Trikitilari Elkarteak maketa lehiaketa antolatu zuen eta erdi-brometan erdi-serio parte-hartzen saiatuko ginela esan genion elkarri. Hiru kantu aurkeztu behar ziren eta sei sortu genituen, gero gehiago, eta diskoa grabatu genezakeela ikusi genuen. AINTZANE: Maketa Lehiaketarako abestiak grabatzeko Legarreko estudioa heldu ginen kasualitatez eta handik sortu zen lehen diskoa egiteko ideia. Bigarrena egiteko, Legarreko teknikaria zen Walter Tuzzeorekin oso harreman estua genuenez eta azkenengo urteetan hainbat jaialditarako eta txapelketarako hainbat kantu prestatu genituenez, grabatzea merezi zuela pentsatu genuen.

MIRARI: Lan handia egin genuen kantu eta letra horiek sortzeko, eta jaialdi batean jotzen duzunean abestia hor gelditzen da bakarrik.

Grabaketa prozesu betean zenbiltzatenean, Walter Tuzzeok bat-batean laga gintuen. Nola bizi izan zenuen hori?

MIRARI: 2019an Walterrengana joan nintzen pare bat



Bere bigarren diskoa grabatu du bikoteak. EKHI BELAR

abesti grabatzeko asmoarekin eta jarraian pandemia etorri zen, gero estudioa itxita egon zen obregatik, eskua apurtu nuen ondoren...

AINTZANE: Hainbat gauza gertatu ziren eta geldirik egon ginen denbora askoan, grabatu barik. Iaz berriz hasi ginen serio eta, Walterrena gertatu zenerako, dena grabatuta genuen. Berak esaten zuen astebeteko lana falta zitzaioela diskoari.

MIRARI: Maketazioa bakarrik falta zen eta Walterrena gertatu zen. Dugun penarik handiena Walterrek lana amaituta ikusi ez izana da. Azkenean, diskoa ez da gurea bakarrik, berak musika-tresna asko jo baitzituen. Horrez gain, hainbat gauzatan asko lagundu zigun, aholku ugari emanaz.

AINTZANE: Walterrek demaseko ilusioa zuen diskoarekin. Teknikaria izateaz gain, laguna zen eta ilusio guztia jarri zuen proiektu horretan. Pena handia izan zen.

Walter Tuzzeoz gain, beste musikari batzuen laguntza jaso duzue. Nolako ekarpena egin dute?

AINTZANE: Kantuak jaialdietan jo izan ditugunez, kasu batzuetan jaialdi horietan beste lagun batzuekin hartu dugu parte eta diskoan ere egon dira: Zalao Ze-

“Diskoko abesti batzuk guk sortu ditugu eta beste batzuk bertsoiak dira, erritmo ezberdinetakoak”

narruzabeitia, Eugenio Gisasola ‘Lutxurdio’, Miren Errasti eta Agurtzane Mujika. Bestalde, Iñaki Ortegaek ere parte hartu du.

Hainbat abesti sortu dituzuela aipatu duzue. Nolako izan da sorkuntza prozesua?

AINTZANE: Trikitixak eta solteko piezak txapelketerako sortzen ditugu batez ere, estresarekin eta ahal den moduan (barreak).

MIRARI: Ni abestien musikaz arduratzen naiz eta Aintzane letrez. Elkarlana da eta zerbait sortzen dudanean bidali egiten diot. Bertsoie dagokienez, abesti bat gustatzen bazaigu eta horrekin zerbait egin daitekeela ikusten badugu, aurrera egiten dugu. Batzuetan abes-

Elkarrizketaren
BIDEOA

tiak berez etortzen dira, dutxan edo lo egiteko zaudela, eta ohetik jaiki eta grabatu egin behar izaten duzu.

AINTZANE: Niri letra asko ohean nagoenean etortzen zaizkit eta, ez baditut momentuan apuntatzen, hurrengo egunean ez naiz akordatzen.

Zergatik egin duzue diskoa CDan kaleratzeko hautua?

AINTZANE: Horren inguruan ez dugu asko pentsatu. Agian erromeriaren munduan dabilen jendea klasi-koagoa delako egin dugu horrela, ez dakit.

MIRARI: Pen-drivean ere atera dugu. Jende askok musika autoan entzuten du eta askok ez dute CD irakurgailurik. Horregatik atera dugu pen-drivean ere, CDaren antzeko kaxan, kantuen letrekin baita ere. Bestalde, gure entzuleetako asko pertsona nagusiak dira eta CDak erabiltzen dituzte musika entzuteko.

AINTZANE: Diskoa kaleratu ahal izateko izan ditugun buruhausteen ondoren, argitaratzea nahikoa izan da guretzat.

Egindako lana ukitu ahal izatea ere berezia da, ala?

AINTZANE: Bai, eta abestien letrak guk egindakoa direnez, entzuleek eskura edukitzea gustatzen zaigu.

Nolako harrera izan du diskoak?

BIEK: Ona!

AINTZANE: Uda sasoi berezia da eta inguruko jende batek agian oraindik ez daki diskoa kaleratu dugunik ere, baina orain arte lore asko jaso ditut egindakoa-gatik. Pozik gaude.

Nolako izan da uda zuzenekoan aldetik?

AINTZANE: Aurtengo udan lasai ibili gara.

MIRARI: Maiatzean eta ekainean eskaini genituen zuzeneko batzuk, abuztuan ere baten bat, baina bestela lasai ibili gara.

AINTZANE: Bestela ere ez gara erromerietan topera ibiltzen. Gaztea zarenean errazago ibiltzen zara astebururo, baina orain gogorra izango litzateke. Oso gustora egiten dudan zerbait da, erromerietan asko gozatzen dut, baina astebururoko zerbait izango balitz, agian ez litzateke horrela izango.

MIRARI: Astero trikitixa eta pandero klaseak ematen



ditugu eta, uneoro gauza berdina egiten ibiliz gero, agian nekatu egingo ginateke.

Trikitixa eta pandero irakasleak zareten neurrian, nola ikusten dituzue trikitixaren belaunaldi berriak?

MIRARI: Nik klaseak Bizkaian ematen ditut eta hango errealtatea agian ez da orokorrean ematen. Ikasle pila bat dago, urtero-urtero kupo guztiak betetzen dira eta jendea sartzeko zain gelditzen da. Gero, aurrera egin edo ez beste kontu bat izaten da, baina afizioa dagoela ikusten da.

AINTZANE: Nik klaseak Azkoitian ematen ditut eta oso herri trikitizalea da. Hara bizitzera joan nintzenez harritu egin nintzen, autoak trikitixa topera ipinita pasatzen zirelako. Gustua ematen du ikasleek zaletasun handia dutelako, baina gaur egun beste gauza batzuekin pasatzen den bezala, musika-tresna bat jotzeak sakrifizio handia eskatzen du eta gaur egungo gizarte ereduarekin asko kostatzen da trikitixarekin aurrera jarraitzea.

MIRARI: Herri handietan batez ere umeez eskolaz kanpoko ekintza ugari egiten dituzte, ez dute denbora askorik, eta soinua jotzeko denbora asko eskaini behar zaio. Askok pentsatzen dute urtebetez ikasi ondoren kalejiran irtengo direla, baina ez da horrela. Trikitixa ez da musika-tresna errazenetariko.


Link Idiomas
 MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438
-INGELESA- KLASEAK GOIZ ETARRATSALDEZ
 UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
 TALDE MUGATUAK
 BAKOITZARI EGOKITUA
 ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETARAKO PRESTAKETA
 MAILA GUZTIAK
 Cambridge English Language Assessment
 Exam Preparation Centre

www.linkidiomas.com
 Juan Gisasola, 5
 943 20 39 59



MATRIKULA **Adolfo JAINAGA**
 ZABALIK
 Urki, 25 - 1. esk.
 943 20 62 66
 676 72 95 51



Trikitixa eta Pandero Eskola


ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
 Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar


EUSKO LABEL
 Baimendutako harategia
Euskal Okela
 Carniceria autorizada

Bidebarrieta, 20
 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
 943 20 16 69
 @Oberenaharategia




eskolara buelta!
elite
 EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...
ISASI kalea, 29
BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA
 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es


ek!
 Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

leku berri bat Ego-Gain, 2
 943 558728

TOPA-LEKU
 taberna
 egunero elkarrekin egoteko

Kartel bikaina bertso-afariaren 31. edizioan

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal eta Agin Laburu laukotea arituko da biharko Arrate bezperako bertso-afarian, Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara. Aurretik Iker Zubeldia iragarrita bazegoen ere, azken egunotan ahots-arazoak izan dituenek, Agin Laburuk hartuko du bere tokia Tiro Pitxoian izango den ekitaldian. Saioa gaueko 21:00etan hasiko da, betiko lez. Lerro hauek idaztenerako oso sarrera gutxi zegoen salgai.

Tiro Pitxoik hirugarrenez hartuko du Arrate bezperako bertso-afaria. 1993an ...eta kitto!-ren eskutik abiatutako ekitaldiak 27 edizio bizi izan zituen Kantabria jatetxean, 2019ra arte. Pandemiak ez zuen ahalbidetu 2020ko edizioa egitea, eta erdibideko 2021eko desberdina izan zen, Arrateko elizak hartu zuelako bertso-saioa egiteko tar-



lazio edizioan ere Tiro Pitxon guztiz bete zen afari ederra egin eta bertsolariak entzuteko.

tea. Behin normaltasunera itzulita, Tiro Pitxoik bi Arrate bezperako hartu ditu dagoeneko eta biharkoa toki berean egingo den hirugarrena izango da.

Aurtengo bertso-afarian parte hartuko duten lau bertsolariak aurretik ere izandakoak dira, batez ere Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio txapeldun nagusiak. Egaña

zarauztarra, esaterako, hasierako 1993. urtean ere Arraten izan zen, Kantabria jatetxean orduan, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano eta Juan Mari Narbaiza eibartarra lagun zituela. Aurtengo beste hirurak, jakina, sasoi hartan gazteegiak ziren parte hartzeko. Bueno, bi behintzat, hirugarrena jaio barik zegoelako.

Herriko soziedadeak jasoko dituen publikazioa

Aurrez ere jakinarazi genuen bezala, 1996an ...eta kitto!-k kaleratutako "Eibarko Elkarte Gastronomikoak" argitalpenaren gaurkotzeko helburuari jarraituz, urtea amaitu aurretik herriko soziedadeak protagonista izango dituen publikazioa aterako dugu. Orain dela 28 urte

egindako bidetik, fitxa antzerakoa betetzea da elkarte guztiei eskatzen dieguna. Uztailaren amaieran ahalgindu ginen lokalizatuta geneuzkan soziedade guztietan horren berri ematen zuen gutuna lagatzen. Edozein kasutan, halakorik ez baduzue, eskertuko genizue gurekin

harremanetan jartzea eta eskatutakoak bidaltzea: elkartearen izena eta nondik datorren, helbidea, sorrera-data, bazkide kopurua, kuota, egun berezia (ospakizun eguna) eta urteroko ekitaldiak. Informazio horri logoa eta talde-argazkia gehituko genizkioke publikazioan.

Gure arteko komunikazioa errazteko asmoz, publizitatea@etakitto.eus helbidera edo **605711422** whatsapp zenbakira idatzi dezakezue. Hilabete honetan edo urriaren hasierarako komeniko litzaiguke informazioa jasotzea. Eskerrik asko aldeztu aurretik.



KITTONBOLIA



Badator **Kittonbolia!** Inoiz baino opari gehiagorekin

Eibarren ikasturtea ez da hasten Arrateko jaiak pasatu arte. Eguraldi eskasa egin duen astea eta gero, asteburua txukuna dator. Lagunekin, familiarekin eta bizilagunekin berriz ere elkartzeko unea da. Ilusioz beteriko ospakizuna da eibartarrontzako, eta ia ezinbestekoa ikasturte berriari indarrarekin aurre egiteko.

...eta kitto! Euskara Elkartearentzat ere ikasturtearen hasiera markatzen dute Arrateek. **BERTSO-AFARIA** izango da irailaren 7an Tiro Pitxoian, eta Arrate egunean **KITTONBOLIA**. Urtero moduan, Eliza parean egongo gara, 10:00etatik aurrera.

Aurtengo Kittonboliak inoiz izan duen opari-porzentaia handiena izango du eta ia boletoen erdiak saria izango du. 2003az geroztik izan den bezala, aurtenera ere txartelak euro batean erosi ahal izango dira. 21 urtean zentimo bakar bat ere igo ez den gauza bakarra da. Gazta, txuleta, bazkariak, otarrak, motxilak, urdaiazpikoa, tablet-a, argazki-kamera, ardo-botilak,

telebista, Coliseorako sarrerak, kamisetak, diskoak, opari-txartelak... eta beste ehundaka sari dituzue zain.

Urtero moduan Eibarko elkarte, denda, taberna eta enpresen laguntasunari esker tonbola opariz jositako ikusiko duzue, eta sariak momentuan jaso behar direla gogorarazi du elkarteak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu opariak eman dituzuen babesle guztioi, eta aldezturik eskerrak eman nahi dizkizuegu egunean bertan boletoak erostera hurbilduko zareten guztioi ere.

Dakizue, tonbolatik lortutako dirua Eibarren euskararen alde lan egiteko erabiliko du Euskara Elkarteak. Urteko programa aurrera eramateko ezinbestekoa dugu. Beraz, berriz ere, eskerrik asko zuen babesarengatik.

**Boletoaren
prezioa: 1 €**



ANTOLATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

LAGUNTZAILEAK

- WAPOS TXAKUR- ILEAPAINDEGIA
- AKARA TABERNA
- ALOHA TABERNA
- AMAÑAKO JAIAK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ
- ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATEUN HARATEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZKENA TABERNA



- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAKO LEKU EGO-GAIN
- BAKO LEKU URKIZU
- BAISI TABERNA
- BALI GIMNASIOA

- BENICOBA ELEKTRODOMESTIKOAK
- BOLINTXO



- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA
- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL
- DANDARA JANTZIDENDA
- DENETIK
- DEPOR
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR IGERIXAN
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO BASO BIZIAK
- EIBARKO KORO GAZTEA
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA
- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL DESIGN



- GO! GIMNASIOA
- GOIKO LUZ
- GOZOKI
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA

- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- I LOVE 10€
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDA TEAM
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE

- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- KAXA



- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KLAUS DEKORAZIOA
- KIÑU BURDINDEGIA
- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA 'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- LULU
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE
- NHAREA MASAJEAK
- NELE DANTZAK
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA

- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIANDI
- PIRRITX ETA PORROTX



- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE
- TUTULO
- TWINS JANTZ IDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA

**ESKERRIK ASKO
LAGUNTZAILE
GUZTIE!!!**

JAI EGITARAUA JAI EGITARAUA JAI EGITARAUA

ZAPATUA 7

- **16:00** **etatik aurrera Zelaian** jai elektronikoa, gurutzean. Soba elkarteak Udalarekin batera antolatuta.
- **18:00** Meza Arrateko Santutegian eta, ondoren, Salbea. Jarraian, txupinazoa eta kanpai errepika.
- **19:00** Herri-kirolak.
- **21:00** **Bertso-afaria**. Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia, Tiro Pitxon jatatxean.
- **22:30** Rock kontzertua Tapia eta Leturia Band, Inguma, Roba Estesa eta DJ M&M taldeen eskutik.



DOMEKA 8

- **10:00** Azitaingo surtidoretik irten eta Arratera igoera, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. Salda, txorizoa eta ardoa Zesteroko iturrian, Betikuak-en eskutik.
- **10:00** **Kittonbolia**.
- **10:30** **Kalejira**. Eibarko Usartza Txistulari Taldea.
- **11:00** **Meza nagusia**. Kezka dantza taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak Arrateko Amaren ezpata-dantza egingo dute. Ondoren, **Arrateko Amaren prozesioa** dantza talde, bertsolari eta herriko agintariez lagundurik. **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute
- **12:30** Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Txistulari Bandak Arrateko Ama Birjinaren **dantzak** egingo dituzte Arrateko zelaian.
- **13:30** Jainaga eta Narbaiza trikitilariak eta Telleria eta German Meabebasterretxea **bertsolarien saioa**,
- **17:00** **Bertsolarien saioa**. Telleria eta German Meabebasterretxea.
- **17:30** **Dantza Solte Txapelketa**. 10 bikote onartuko dira, alde zurretik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak).
- **17:30 - 21:00**. **SASOI**aren eskutik aisialdi-eremuan alkohol kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kanpaina. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.
- **18:30-21:00** **Dantzaldia** Emepe5 taldearekin.



ARRATEKO JAIK 2024

7 zapatua

11:00 IGOERIA (Klub Deportibuan eskutik)
 13:00 TXUPINAZUA
 13:30 TRIKIPOTEUA
 15:00 BAZKARI HERRIKOIA (Bizimiñan eskutik)
 17:00 BINGO MUSIKATUA
 19:00 LOKAL BUBBLES (Pintxada)
 21:00 BRIGADA MOREKO BILERA
 21:30 KONTZERTUAK
 03:30 IRRINTZI TXAPELKETA

TAPIA ETA LETURIA Band

INGUMA ROBA ESTESA

DJ M&M

8 domeka

12:00 PRESUEN ALDEKO ARGAZKIXA
 EGUN OSUAN ZIHAR TXOSNAK ZABALIK



**JAIK
 HERRIKOIAK
 HERRIKOIAK!**

Autobus zerbitzua



- **Hilaren 7an.**
Eibar-Arrate-Eibar:
 17:00etatik 22:00etara, ordu erdiro.
 Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.
- **7tik 8rako goizaldean.**
Eibar-Arrate-Eibar:
 01:00etatik 08:00etara, ordu erdiro.
 Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.
- **Hilaren 8an**
 08:30etik 23:30era, autobusak etenik
 gabe ibiliko dira gora eta behera.
 Toribio Etxebarriatik abiatuko dira.



Musikaz gozatzeko asteburua Arraten

Bihar eta etzi ez da musikarik faltako Arrateko zelaian. Jaixak Herrixak Herrixandakok eta Eibarko Udalak prestatu dituzten jai-egitarauekin hainbat talde etorriko dira Arrateko Jaietara eta estilo ezberdinetako doinuak entzuteko aukerak eskainiko dituzte. Jarraian aipatutakoez gain, Emepe5 eta DJ M&M ere izango dira Arraten.



ROBA ESTESA

2014an lehen maketa grabatu zutenetik, Roba Estesak euren inguruan pasatzen den guztiari buruz abestu du: maitasuna, desioa, ahultasuna, haserre, kolektibitatea edo identitateak.

‘De lo bo, lo millor’ azken diskoan ohiko izaera borrokalariari eusten diote, baina eguneroko bizipenetatik abiatuta. Antònia Font-en ‘Amb calma’ filmeko kolaborazioak biltzen dituen diskoa Bartzelonako Apolo aretoan aurkeztu zuten, eta kontzertu horretatik atera zen La Furia rap abeslariarekin kantatutako bideoklipa, ‘1312’, poliziaren indarkeria salatzen.

Uda honetan hainbat herritan izan dira, eta kontzertuen artean irakurtzeko, serieak ikusteko eta espazio publikoa aldarrikatzen denbora aurkitzen dute. Roba Estesarentzat trago bat hartzera irteera ere ekintza politikoa da.

Katalanez abesten dute, eta kaleko eta jai-giroko musika folk doinuekin fusionatzen dute. Horrela, zortzi lagunek osatzen dute taldea: Alba Magriñà, Anna Sardà, Clara Colom, Clàudia García-Albea, Gemma Polo, Laia Casanellas, Helena Bantulà eta Sandra Bracke.



INGUMA

Oñatitik musika dantzagarria iritsiko zaigu Inguma taldearekin. Ibon Perez, Alex Markuleta, Xabier Albistegi eta Beñat Leturiagak sortu zuten taldea 2019an eta, hasi eta berehala, pandemiari egin behar izan zioten aurre.

Sasoi horretan zuzenkorik eskaintzeko aukerarik izan ez zuten arren, taldeak hasierako txinpartari eutsizion. Harrezkero jo eta su ibili dira eta, uda honetan geldialdia egin ondoren, Arraten eszenatoki gainera itzuliko dira. Aukera hau aprobeztatu!



TAPIA ETA LETURIA BAND

Tapia eta Leturia bueltan dira, baina orain soinu-jole baten eta panderojole baten konbinazioa baino askoz gehiago dira, banda bat dutelako atzetik.

1984tik, lehen aldiz elkartu zirenetik, trikitixaren doinua agertoki posible guztietara eraman dute: txapelketetatik jai eta erromerietara, aretoetatik eta folk eta rock jaialdietatik ere igaroz. Baina, batez ere, Tapiia eta Leturia triki garaikidearen munduan kokatzen dira, are gehiago bandarekin proposatzen duten eskaintzarekin.



LOKAL BUBBLES

Barakaldoko DJ proiektua da Lokal Bubbles eta biharko bazkalostea girotuko du Arrateko zelaian. Biniloaren maitaleak, punk, soul, rock, mod, Oi!, powerpop eta 70eko eta 80ko doinuak jartzen espezialistak dira. “Love analog, hate digital”, da euren leloa; hau da, “analogikoa maitatu, digitala gorrotatu”.

Langile klasearen ereserkiak jartzen dituztela iragartzen dute eta bazkalosteko logura albo batera lagatzeko proposamen ezin hobea izango dela antzeman daiteke.



ZELAIAN JAIALDIA

Soba elkarteak bere lehen urtebetetzea ospatuko du bihar Arraten eta, horretarako, jaialdia prestatu du: Zelaian Jaialdia. Natura eta musika elektronikoa bazten dituen jaialdia izango da eta gurutzearen inguruan egingo dela iragarri dute.

Hauek izango dira bertan musika jartzen arituko direnak: Alexander Loop B2B House One, Almuedo B2B Costas, Berruetta B2B Dans, BRGS B2B Garai, Goiko B2B Jon Larrañaga, Julen Lujan, Julen Oru B2B Unai Santos eta Txima.

Brigada Morea aurten ere martxan izango da Arrateko jaietan

Aurreko urteetan bezala, **Brigada Morea**ko kideak Arrateko jaietan izango dira indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzen, erasoak eragozten eta baita biktimei lehenbiziko arreta ematen ere. Horretan buru-belarri dabil **Jaixak Herrixak Herrixandako** taldea. Brigada Morearen inguruan egin dugu berba jai batzordeko Irati Azpilikueta, Maite Elortza eta Miren Cid-ekin.

Elkarrizketaren BIDEOA



Herri askotako jaietan ikus ditzakegu Brigada Moreak, emakumeendako ez baita eremu segurua oraindik. Eibarren Jaixak Herrixak Herrixandako batzordeak antolatzen ditu gaur egun, eta aurten ere Arrateko jaietan egongo dira, edozein motatako erasoak jasaten dutenei babesa emateko prest. Izan ere, Brigada Moreak autodefentsa feministaren tresna garrantzitsuenetako bat bihurtu dira.

Brigada Moreak autodefentsa feministaren tresna garrantzitsuenetako bat bihurtu dira, eta geroz eta presentzia handiagoa dute jaietan

Eibarko Brigada Moreako kideak dira Miren Cid, Irati Azpilikueta eta Maite Elortza, eta, azaldu digutenez, "jaietan edozer pasatzen zaizula, arduradunengana joan zaitezke –txaleko morea eramaten dutenak dira–, edo bestela sarea osatzen dutenengana; azken hauek brazaletxe morea eramaten dute. Horrez gain, aurten puntu more moduan **Jaixak Herrixak Herrixandako**ren txosna egongo da, eta, beraz, edozein arazo

izanez gero, bertara gerturatzea besterik ez dago.

Brigada Morea antolatzearen arrazoiak azaldu dizkigute hiru gazteek: "Emakumeak arlo guztietan gara erasotuak (familiar, lanean, eskolan...), eta jaiak ez dira salbuespena. Horri erantzun bat emateko antolatzen dugu Brigada Morea. Ez dago eraso mota bakar bat. Kasuak askotarikoak izan daitezke. Protokoloan bi mailatan banatzen ditugu, intentsitate altukoak eta baxukoak, bereziki kudeatzeko modua aldatzen delako. Intentsitate baxuko erasoak hamar mila dira (irainak, komentarioak, ukituak, norbaitek *turra* ematea...). Deserosotasuna sortzen dizun hori ere eraso da. Hain normalizatuak ditugu eta hain dira egunerokoak, askotan ez ditugula identifikatzen. Eta askotan pentsatzen dugu inork ez digula kasurik egingo. Horretarako gaude gu. Brigada Morea antolatzen dugu, erasoak kudeatzeaz aparte, babesa emateko gure artean, hau da, jaitiketo norbait dagoela zurekin".





Argazkian Irati Azpilikueta, Maite Elorza eta Miren Cid.

Intentsitate altuko erasoak izango lirateke bortxaketak, jipoiak..., eta "horiek modu desberdinetan kudeatzen ditugu. Brigada Morean lehenatasuna ematen diogu erasotua izan den pertsona artatzeari. Ahal dugun guztian lagunduko diogu: komisaldegian salaketa jarri nahi badu, publikoki salatu nahi badu, erasotzailea bertatik kanporatu nahi badu... Erasotuari eskura ditugun baliabideak ematen dizkiogu eta erabakia bion artekoa

"Erasoak oso normalizatuta ditugu, eta askotan ez gara identifikatzeko gai. Erasoa ezin ditugu normaltasun bihurtu"

izaten da. Gure oinarria, beti ere, babesa ematea da", diote.

Brigada Morea osatzen duen sarean momentu honetan 50 lagun inguru daude: "Herriko jaietan horrelako sare handia sortzea lortu dugula ikustea oso pozgarria da. Talde motorra Jaixak Herrixak Herrixandako da, baina gero eta jende gehiago eta gazteagoa gerturatzen da bileretara, eta hori oso garrantzitsua da. Bileretan hausnarketak eta eztabaida mordoa edukitzen ditugu. Aurrelanketa horrek laguntzen digu erasoak identifikatzen eta beste jende baten babesa bilatzen. Erasoa ezin ditugu normaltasun bihurtu, eta hori helarazi nahi dugu gehienbat". Era berean, Brigada Morean eraso mota guztiei erantzuten dietela argi utzi nahi dute, izan eraso matxistak, izan arrazistak, transmaribibollofoboak...

Jaietan telefono bat izango dute arduradunek uneoro (**643 21 30 46**). Beraz, edozer gauza ikusi edo jasan ezkerro, deitu besterik ez daukazue.





Pello Osorok podiumetik podiumera dihardu azken asteotan

Eibarko triatletak bigarren postuan amaitu zuen distantzia erdiako Frómista triatloian eta, horrela, proba hori jokatu duen seigarrenean ere podiuma eskuratu du. Orain arte parte hartu duenetan hiru urrezko, bi zilarrezko eta brontzezko bat lortu ditu: ez da txantxetarako emaitza. Aurreko bietan irabazi zuen Pello Osoro oraingoan bigarren helmugaratu zen, Jonas Schomburg alemanaren atzetik geratzeko.

1.900 metro igerian, 90 kilometro bizikleta gainean eta maratoni erdia antxintxiketan osatzen duten probak 250 partehartzaile hartu zituen.

SwimRun modalitatean Biarritzen jokatu zuten proban, bestalde, berak eta Ioana Osa Peñota Dental Alusigmako taldekideak osatutako bikote mistoa onena izan zen. Euren denbora 2:05:39koa izan zen, sailkapen nagusiko laugarrena hain zuten; hori bai, aurretik

helmugaratu ziren beste hirurak gizonez osatutako bikoteak izan ziren.

Guztira 86 bikotek amaitu zuten proba antxintxiketan egin beharreko 19 kilometro eta igeriketan egin beharreko beste hiruk osatu zuten. Korrika egiteko tartek bost tramo izan zituen, luzeena hamar kilometrokoa, eta igerian egin beharrekoak beste lau, horko luzeena 900 metrokoa.

Aldaketak Eibar Rugbyko entrenatzaileen postuetan

Gure herriko errugbi taldean ia markada bat egin ondoren, bederatzi denboraldi guztira hain zuzen ere, Cristina Guntin eta Gaston Ibarburu entrenatzaileek Eibar Rugbyko taldeen ardura izateari laga diote. Guntin galziarrak, emakumezkoen lehen taldea zuzentzeaz



Amaitu da Guntin eta Ibarbururen etapa.

aparte, Euskal Ligan jokatzeko bigarren taldea ere gidatzen zuen. Emakumezkoen lehen talde horrek Ohorezko Mailako Iberdrola Ligara igotzea lortu zuen 2020an eta bertan izan da azken denboraldira arte, oraingoan maila galdu duela. Tartean, 2023an esaterako, seven modalitateko Erreginaren Kopa irabazi zuen iaz. Ibarburu uruguaiarrak, bestalde, Ohorezko B Mailan eutsi zion gizonezkoen lehen taldeari 2022ko denboraldiko amaieran maila galdu arte. Taldea orain jokatzeko duen Euskal Ligan txapeldunorde izan zen hurrengo urtean, 2023an, eta aurten zortzigarren postuan amaitu du.

Bestalde, Eibar Rugbyko emakumezkoen lehen taldeak baditu



Aguado eta Gorrotxategi entrenatzaileak.

entrenatzaile berriak hurrengo denboraldirako. Javi Aguado eta Jokin Gorrotxategi izango dira hainbeste berritu eta gaztetu den taldea, heldutasun bidetik, azken denboraldian galdutako mailara berriro bueltatzen ahaleginduko direnak.

Mek Eibar Eskubaloia lehiaketarako itzulera hasi da prestatzen

Mek Eibar Eskubaloiko senior mailako taldeek badaramatzate ia hiru aste entrenatzen eta aurreko zapatuan lehenengoko lagunartekoei egin zieten aurre. Fernando Fernandezek aginduetara 1. Nazional Mailan jokatu duen gizonen lehen taldeak 27na berdindu zuen Trapagaran talde bizkaitarraren kantuan. Lurreldeko 1. Mailan jokatzen duen bigarren taldekoek, bestalde, 15-30 erraz irabazi zioten Txingudi Eskubaloia Irungo

Artalekun jokatutako partiduan. Azkenik, Ohorezko Zilarrezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen Mek-eko lehen taldeak Ipurua kiroldegian bertan hartu zuen bere lehen lagunartekoa. Euskal Ligako Urdaibai izan zuten aurkari 11 minuturen faltan bertan behera laga behar izan zuten partiduan, kanpoko euri-jasaren eraginez pista busti zelako. Markagailuak etxe-koen aldeko 31-18koa erakusten zuen une hartan.



Mek Eibar Eskubaloiko lehen taldekoek azken denboraldia agurtzen Ipuruan.

Hodei Ezpeleta aizkolaria onenekin aritu izan da uda honetan ere

Mendaron bizi den gure herriko aizkolaria udako lehiaketa garrantzitsuenetan hartu du parte oraingoan ere, eta maila onean jardun. Nafarroako Sunbilla herrian jokatutako

Latasa Memorialean, Mikel Larrañagarekin berak osatutako bikoteak bigarren postua eskuratu zuen. Eta Donostiako Aste Nagusiaren barruan jokatutako Urrezko Kopan, hor banakako lanean, hirugarren postua erdietsi zuen, Iker Vicente ahalguztidunaren eta Mikel Larrañagaren atzetik sailkatzeko. Trinitate Plazako hitzordu horretan urtero une horretako aizkolaria onenek hartzen dute parte.



Apnea ikastaroa Deporrekoen eskutik

Hilaren 13, 14 eta 15erako apnea ikastaroa antolatu du Klub Deportivo Urpekaritza batzordeak. Ikastaroa Gari Iruretagoienak eskainiko du, urpekaritza modalitate horretan esperientzia handia izateaz aparte emaitza ezin bikainagoak lortu dituen. Klub Deportiboko ordezkariek, Euskal Herriko eta Espainiako txapelak janzteaz gain, brontzea irabazi zuen Belgradon jokatutako azken Mundialean. Interesatuak subacuaticas@deporeibar.com helbidera idatzi dezakete.

Imanol Egidazuk Mundiala laga du

Peruko Liman jokatzen ari zen atletismoko 20 urtetik azpikoek Mundiala bertan behera laga behar izan du Deporrek atletak taldean izandako janari-intoxikazio baten eraginez. Aurretik, uztailaren amaieran, Espainiako txapela jantzi zuen eibartarrak Castellon hain berea duen hamar probaz osatutako dekatloi proban (7.411 punturekin).



Mercedes Kareaga beka Eibarko hezkuntzaren oinarriak ikertzeko izango da

Udalak Mercedes Kareaga beka bigarrenaz kaleratu du eta, aurtun ere, Eibarko herriarentzat interes berezia duten ikerketa-proiektuak sustatu, ikertu eta zabaltu nahi dira. 2024ko ediziorako, Ego Ibarra Batzordeak EHUKo Historia Sailarekin batera aukeratu duen gaia hau izan da: *1880tik 1936ra bitarteko Instrukzio Publikoa Eibarren. Herriko maistrak*. Ego Ibaratik azaldu dutenez, “ekimen hau tokiko historiaren hutsune bat betetzera dator, gai hau orain arte gutxi aztertu baita, eta interesgarria da Eibarko hezkuntza sistemaren oinarriak zeintzuk izan ziren jakiteko”. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da, eta interesdunek urriaren 1etik azaroaren 30era bitartean aurkeztu beharko dute proposamena. Informazio gehiagorako Ego Ibarren webgunean begiratu daiteke.

Aisialdiko Begirale titulua eskualdean lortzeko ikastaroa

Eibar, Soraluze, Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaroko udalek Aisialdiko Begirale titulua eskualdean bertan eskuratzeko ikastaroa antolatu dute, Gaztetxo Eskolarekin elkarlanean. Ikastaroa euskaraz izango da, urritik ekainera bitartean, eta ikasleek 18 urte izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzen denerako (2025eko ekainaren 30erako). Kurtsoa amaitzen dutenek Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale” titulu ofiziala eskuratu dute. Informazio gehiago eskuratzeko 943 708426 telefono zenbakira deitu daiteke, eta izena emateko, berriz, <https://labur.eus/debabarrenabegirale> helbidera jo.



Judash taldeak bere lehen diskoa kaleratu du

Judas Argarate izenarekin sortu zen taldeak irudi berriarekin eman du jautzia, eta Judash izenarekin lehen diskoa kaleratu du. Markel Iraola, Joseba Goñi, Hodei Otegi eta Ekaitz Vegasek osatzen duten taldeak rock doinuko 11 abestirekin sortu du diskoa. 2023an hasi ziren grabatzen, Walter Tuzzeo soinu-teknikariarekin, baina honen bapateko heriotza eta gero, azkenean Axular Arizmendik nahastu du diskoa, Mutrikuko AME estudioan, eta Baionan masterizatu du Paxkal Etxeparek. Zaizoi eta Trinkete (Eibar), Tantaka (Elgoibar) eta Idergi (Altsasu) tabernetan dago salgai, 10 eurotan, eta plataforma digitaletan ere entzun daiteke. Gainera, ‘Gerra’ abestiaren bideoklipa YouTube n ikusi daiteke.

Afrikako emakumeen literaturara gerturatzeko

Munduko emakumeen literaturari buruzko saiok egingo dira Andretxean ikasturte honetan ere. Oraingoan horren ezaugarriak ez diren Afrikako hainbat egileren berri emango dute. Antolatzaileen berbetan, “Afrikako egileek idazten dutenean erabiltzen duten aniztasuna eta aberastasuna ezagutuko ditugu”. Saiok hilean behin izango dira, urritik maiatzera, eta eguaztenetan egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara. Dinamizatzailea Ainhoa Aldazabal Gallastegui (Skolastika) izango da. Irailaren 25era arte eman daiteke izena, Udalaren eta Andretxearen webguneetan, edota modu presentzialean, Andretxean.





Harixa Emoten euskarazko literatura taldean zein beste irakurle klubetan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Ikasturte honetan Harixa Emoten euskarazko literatura taldean parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea zabalik dago. Portalean egiten diren saioak Eibarko Liburutegiak antolatzen ditu, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean, eta Ainhoa Aldazabal aritzen da dinamizatzaileran. Hilean behin elkartzen dira, martitzenetan, eta idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaintzen die partaideei, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Jardueran parte hartzeagatik ez da ezer ordaindu behar, eta liburutegia arduratzen da irakurri beharreko liburuaren aleak lortzen. Aurrematrikula hilaren 15era arte bete daiteke, Udalaren webgunean dagoen formularioa betez.

Ume eta gaztetxoen irakurle klubak

Helduentzako euskarazko literatura taldeaz gain, Liburutegiak beste hainbat irakurle klub antolatzen ditu, ume, gaztetxo zein helduentzat: Azalerako Ipuinak (Haur Hezkuntzako 1, 2 eta 3 urteko geletako haurren familientzat), Liburuaren Poltsa (Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurren familientzat) eta Paperezko Hegoak (LHko 3. mailatik aurrera), euskaraz; helduentzat irakurketa kluba, gazteleraz; eta, horrez gain, ingelesa eta frantsesa praktikatu nahi dutenentzat taldeak ere badaude. Talde hauei buruzko informazio zehatza Udalaren webgunean kontsultatu daiteke, eta izen-ematea ere bertan egin behar da, bakoitzari dagokion formularioa betez. Kasu guztietan, aurrematrikula betetzeko epea irailaren 15era artekoa da.



Rosa Martinez-Alcocer aktore eibartarra omentzeko antzezlan Coliseon

‘Teatro sin tierra’ antzerki taldeak Rosa Martinez-Alcocer 2021eko apirilean hil zen aktore eibartarrari omenaldia egingo dio irailaren 13an, *Fue en abril. Pequeño homenaje a una actriz* izenburuko lana Coliseo antzokian aurkeztuta. Paco Obregón Barrutietak idatzi eta zuzendutako lan horretan Carlos B. Rodríguez, Enare Martín eta Sol López arituko dira, eszenatokietan kide izan zuten emakumea gogoan. Antzezkizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Kezkaren Dantza Eskolan aritzeko izen-ematea zabalik dago haur zein helduentzat

Kezka Dantza Taldetik kudeatzen duten Dantza Eskolan 2024-2025 ikasturtean jarduteko izen-ematea zabalik dago, nagusientzat zein haurrentzat. Bereziki, 2018. urtean jaiotako haurrak gonbidatu nahi dituzte eta hauek martitzenetan arituko dira, 18:00etatik 19:00ak bitartean. Izena emateko 605711429 zenbakira



edo kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da, ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz, gero harremanetan jarri ahal izateko.

AMAIA TELLAETXE • Artista

“Zentzumenek sentiarazten didatena margotzen dut”

Gaur arratsaldean inauguratuko du Amaia Tellaetxe artista eibartarrak erakusketa Untzaga gizarte etxean. Margotu dituen koadrorik berrienak biltzen dituen erakusketa irailaren 15era arte ikusi daiteke, astelehenetik barixakura, 19:15etik 21:00etara; eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Natura eta zientzia dira bere inspirazio-iturriak. SILBIA HERNANDEZ

Noiz eta nola hasi zinen koadroak margotzen?

Betidanik margotu dut, umetatik izan dut horretarako zaletasuna. Lehenik pintura artistikoa ikasi nuen, Paulino Larrañagarekin. Eskulturak eta egurrezko taillak egiteagatik ezagutzen dute askok, baina margotzen ere oso ona izan zen, eta nik zazpi urte eman nituen berarekin, bere eskolan ikasten.

Damaskinatzen ere badakizu. Nork irakatsi zizun?

Hasieran Maria Jesus Portillo hasi zen erakusten, baina gaixotu eta hil egin zen, eta bere ordez Maria Asun Nogues sartu zen eskolan, eta orduan berarekin jarraitu nuen ikasten. Bakoitzarekin hiru urte egin nituen. Amak hilero-hilero ordaintzen zuen, nik eskolan damaskinatua ikasi eta titulua atera ahal izateko. Eta sei urte horietan arratsalde Txontara joaten nintzen, hango tailer batean lan egin eta ikasten jarraitzeko.

Irakasle on asko izan dituzu orduan...

Bai. Pinturan, Marina Barrena ere izan nuen irakasle, beste teknika batzuk ikasi nahi nituelako. Paulino oso margolari ona zen, marrazkilari bikaina, baina nik gauza berriak ikasi nahi nituen. Marinak Arte Ederretako titulua zuen, eta urtebete egon nintzen berarekin, beste teknika batzuk ikusi eta ikasteko.

Erakusketan dauden koadroak ikusita, zeure-zeurea den margotzeko estiloa daukazula esan liteke. Hala uste duzu zuk ere?

Zientzia asko gustatzen zait. Mineralak, zulo beltzak, Stephen Hawking zientzialaria... bere lanekin ikasten joan naiz. Nire koadro eta marrazkietan sentitzen dudana adierazi nahi dut, naturan eta zientzian inspiratzen naiz. Bi horiek ardatz ditudala, zentzumenek sentiarazten didatena margotzen joaten naiz.

Teknika bereziarekin margotutako lanen bat ere ekarri duzu, jendeak ikusteko.

Bai, koadroetako batean metala dagoela konturatuko dira erakusketara datozenak, hori egiteko beste teknika bat erabili dut. Armeria Eskolan izan nuen beste irakasle batek, Etery Prietok irakatsi zigun eztainua nola erabili. Berarekin ikasitako teknika hori erabili dut geisha baten irudia margotzeko.



BAZKIDE zertarako?

Herrigintzan jarduteko, herriko jaietan parte-hartze zuzena izateko, euskaraz eta euskaratik.



Herrigintza

Herriko jaietan parte hartuz eta herriko eragile ezberdinekin elkarlanean hainbat ekitaldi antolatuz: Arrate, San Andres eta San Juan jaiak, aratosteak, Euskararen Eguna, Tantanez Tantan...

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2			3	4		
				2			
	5	1	6	4			8
8	6			7		2	
	9						7
		2		6			1 9
7				9 8	5	4	
				1			
		8	2				6

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8


soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9		3	8		1	2
				6		7	4
						5	
	3	6			2	9	
9							1
		2	6			3	4
		1					
3	2			4			
5	7		2	6			8

soluzioa



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			2			4	
				5	3		8
	7	3			9		
		6		4	2	9	
9		5	1		6	7	2
		4	7	9		1	
			9			8	7
	6		3	8			
		9			7		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		8	3					
				7		5	4	
7	4	5			2		3	
	1	6		2	3	4		
		3	4	6		9	5	
	3		7			2	8	4
	2	7		8				
						4	7	

soluzioa



Jaione Ibarra Orrantia

2024/08/12

"Zure alaitasuna eta maitasuna gure gogoan daude"

ESKERRIK ASKO une latz haueetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.

- ETXEKOAK -



Juan Luis Hajar Sanchez

2024/07/29

Nola esan bi hitzetan aitatzko kuttuna altxor haundi bat dala uzten diguzuna konpartitu duguna zure maittasuna gidari izango dugun irripar leuna.

Kitty, bere emazte ohia
Brenda eta Justin
Ianire eta Nahia, bere alabak




Arrate Viteri Garay

2024/08/25

"ESKERRIK ASKO, ama, amama, ilargiraino eta buelta maite eta maitatuko zaitugu!"

MILA MILA ESKER guregana hurbildu eta maitasun ke-nuak helarazi diguzuen danori, bihotzez

JOSU, KALA, BIDATZ, JULEN ETA LEIRE





Bittor Ariznabarreta Eguren

2. URTEURRENA
2022/08/21

"...eta nik txoria nuen maite!"

ESKERRIK ASKO, AITTA




Enrique Alcelay Aizpiri

3. URTEURRENA
2021/08/31

"Gure bihotzetan zaude betirako. Maitte zaittugu"

- ETXEKOAK -



Manu Fernandez Goikoetxea

10. URTEURRENA
2014/08/04

"Ez egin negarrik amaitu delako; irribarre egin bizi izan dugulako"

- ZURE KUADRILA -



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **7an:** 19:45, 20:00
- **8an:** 20:00

“El conde de Montecristo”
 DRAMA



2024/ Frantzia / 178'
 Zuzendaria: Matthieu Delaporte
 Aktoreak: Pierre Niney, Anâis Demoustier, Laurent Lafitte
Abenturak/ Mendekua

2 ARETOA

- **7an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **8an:** 17:00, 20:00
- **9an:** 19:30

“La trampa”
 AKZIOA



2023/ AEB / 180'
 Zuzendaria: M. Night Shyamalan
 Aktoreak: Josh Hartnett, Saleka, Ariel Joy Donoghue
Intriga/ Serie-hiltzaileak

ANTZOKIA

- **7an:** 17:00 (1.Añ), 19:45, 22:30
- **8an:** 17:00 (1.Aretoa), 20:00
- **9an:** 19:30 (1.Aretoa)

“El cuervo”
 AKZIOA



2023/ AEB / 116'
 Zuzendaria: Rupert Sanders
 Aktoreak: bill Skarsgard, FKA Twigs, Danny Huston
Mendekua/ Komikia/ Remakea

ANTZOKIA

- **7an:** 17:00
- **8an:** 17:00

“Central Parkeko Heroiak”
 ANIMAZIOA



2023/ Frantzia / 89'
 Zuzendaria: Jérémie Degruson
Komedia/ Abenturak/ Panpinak

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria Mugica

TANATORIO CREMATORIO EUGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
 Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

688 62 76 89

Urkizu, 11 - solairuarekin
publizitatea@etakutto.eus

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behariko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **JULEN!**
Gure bihurrikak
5 urte betetzen
dittu eta! Patxito
erraldoia asko
maite zaittuen
famelixaren
partez!



Zorionak, **PABLO,**
txapeldun!!
Hillaren 9xan
4 urte! Patxito bat
etxe kuon eta,
batez be, Lucia
zure arrebaren
partez!



Zorionak, **MAIA,**
abuztuaren 28xan
5 urte bete
zenuazen eta!
Bikaiña zara
benetan!! Famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **HAIZEA!**
Abuztuaren 27xan
7 urte bete
zenuazen eta.
Patxo bat etxeko
guztien eta, batez
be, Izaroren partez.



Zorionak, **GARA!**
Abuztuaren 21ian
4 urte bete
zenuazen eta!
Jarraitu hain alai!
Patxo pillo bat
etxeko guztion
partez!



Zorionak, **IBAI!**
Uztailaren 29xan
urtetxua egin
zenualako.
Amatxo, aitatxo,
Eneko eta famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**
Agote, abuztuaren
29xan 8 urte bete
zenuazen eta.
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, **NAIA,**
abuztuaren
19xan 8 urte bete
zenuan eta. Musu
haundi bat etxeko
guztien partetik.



Zorionak, **IKER,**
datorren eguenian
12 urte egingo
dozuz eta. Musu
haundi bat
famelixa guztiaren
eta, batez be,
Koldoren partez.



Zorionak, **IXONE**
Ortiz de Zarate
Torre, bixar 12 urte
beteko dozuz eta.
Famelixa guztiaren
partetik.



Zorionak, **OSKITZ**
Ruiz, atzo 7 urte
egin zenuazen
eta. Musu haundi
bat etxeko guztion
partez. Ask
maite zaittugu,
txapeldun!!!



Zorionak, **ALAITZ** (abuztuaren
14an 12 urte) eta **LUKA**
(abuztuaren 27xan urtetxua).
Musu haundi bat famelixaren
eta, batez be, Gaizka eta
Noaren partez.



Zorion pillo bat gure potxolo
bixeri: **UNAI** (abuztuaren 25ian
4 urte egin zittuan) eta **ARATZ**
(26xan urtetxua bete zeban).
Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LUCIA** eta **ANE!**
Gure printzesak 8 eta 10 urte
bete dittue eta. Patxo potolo
bat danon partez!



Zorionak, **MANEX** (abuztuaren
8xan 11 urte) eta amatxo
SUSANA (uztailaren 23an),
urtiak bete dozuez eta. Musu
haundi bana lagun en partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Etxe argitsua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Igogailuarekin. 687033834.
- Pisua alokagai Jardinetan, goiko parkinetik gertu. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela beheko suarekin. Gas naturala. Ortua jartzeko lur sailtxoa. Eguzkitsua eta bigata ederrak. 750 hilean. 651678454/658723275.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean laguntzeko. 677259560.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 625200924.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Orduka. Urteetako esperientzia. 620757528. Arrate.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore lanak egiteko Eibarren eta Ermuan. Baita beste batzuekin lan egiteko ere. Urteetako esperientzia. 634155697. Javi.
- Lanetarako eskua duen gizonezkoa eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta bestelakoetarako. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632642320.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 643085244.

- Neska eskaintzen da goizez umeak eta nagusiak zaintzeko, garbiketarako lanetarako edo jendeaurrean lan egiteko (dendak...). Esperientzia. 688624667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko goizez. 642986129.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) etxean zein ospitalean eta etxeko garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 667060292.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 672913892.

4.2. Langile bila

- Acitain gasolindegian langilea behar da (baja bat ordezkatzeko). Jornada osorako. acitain@gmail.com
- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitario agiria. 688670009.
- Sukaldari euskalduna behar da urritik aurrera Eibarko Klub Deportiboak martxan jarriko duen jatetxerako. 665726146 (Iñaki) eta 943201904 (Klub Deportiboa).
- Kamarera/o behar da irailera-ko. 627778980.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- Kitarra, baxu elektrikoa, konboak, sormen eta edizio musikala (home estudio) eta armonia modernoaren klaseak ematen dira. maria-nohurtadobravo@gmail.com. 652217737. Mariano (Musikene).
- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alerto.

6. DENETARIK


6.4. Lan bila

- Badok elkartearen (Labadero-kua) bazkideak behar dira. Mahai-jokoak eta musika zale-tuak. 675712886.

EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

Irailaren 27ra arte MATRIKULA ZABALIK

2024-25 IKASTURTEA



Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARAZ

hazte

Da el primer paso,
aprende euskera.

Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierta
2024-2025

UDAL EUSKALTEGIAK
HABE


- **Aurrez aurreko ikastaroak.**
Astelehenetik ostegunera.
On-line jarraitzeko aukera.
- **Autoikaskuntza.** Bakarkako lana,
tutoretzak eta mintzasaioak.
- **HABE, IVAP eta Osakidetzako**
azterketak prestatzeko aukera.
- **A1/A2 mailetan** titulu ofiziala
Euskaltegian bertan.
- **B1/B2/C1 eta C2 mailetan**
HABEren deialdi itxira
joateko aukera.


DESKONTUAK: % 20, % 50, % 75, ... KONTSULTATU

**16 urtetik gorakoentzat
ORDUTEGI ZABALA**

Bista Eder, 10 - PORTALEA

euskaltegia@eibar.eus

 **943 700 912**

 **688 698 566**



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula:
Irailaren 2tik 17ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

*Agiri ofiziala
eskura ezazu!*

Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoieibarheo@gmail.com
943899275

